

Iñaki Goenaga – Zentro Teknologikoen Fundazioa

II. DEIALDIA

DOKTORETZA BEKAK

DEIALDIAREN OINARRIAK

Onuradunak

Bekak **Goi-mailako Unibertsitate Tituludunentzat** dira, Doktoretza Tesia kalitate edo ospe frogatua duten ikerketa-unitateetan (publiko nahiz pribatuetan) egin nahi badute.

Ingeniaritzako Tituludunek bukatuta izan beharko dute Ikasketa Bukaerako Proiektua.

Ezingo du eskuratu Doktoretza Bekarik Iñaki Goenaga - Teknologi Ikertegien Fundazioaren bekaren bat izan duenak, salbu Fundazioaren beraren ikerketa-bekaren baten lehenengo urtea bakarrik garatu duenak.

Beken diru-kopurua

Beka bakoitzaren diru-kopuru gordina 1.002,00 €-koa izango da 2003. urtean.

Gainera, Doktoretza Programako Matrikula Tasak ere sartzen dira bekan.

Istripu Asegurua ere sartuta dago bekan.

Beka hau ez da bateragarria beste beka edo lansari batzuk hartzearekin.

Bekaren garapena

Beka garatzeko, doktoretza-ikastaroetara joan behar da, eta Doktoretza Tesia egin behar da ikerketa-proiektu baten barruan.

Bekadunak tutore bat izango du, Unibertsitateak izendatua, eta Doktoretza Tesiaren zuzendari bat, beka garatzen duen Ikertegian bertan izendatua. Bi figura horiek bateragarri dira pertsona bakar batengan.

Doktoretza Beken iraupena urtebetekoa izango da, baina luza daiteke, gehienez ere 4 urtera. Tesiaren defentsa 4 urte horiek baino lehen egiten bada, Tesiaren defentsa egiten den hilabetean bukatuko da beka.

Iñaki Goenaga - Teknologi Ikertegien Fundazioak hautagaiari buruzko iritzia eskatuko dio Tesiaren zuzendariari. Datu hau eta dagokion proiektuaren egoera funtsezkoak izango dira Beka berritu ala ez erabakitzeko.

Beka hauetakoren bat lortzeak erraztu egin dezake gero Ikertegian bertan garatuko diren baina Iñaki Goenaga - Teknologi Ikertegien Fundazioarenak ez diren Doktoretza Beken deialdiez baliatzea.

Beken izaera

Laguntza hauek ez dute inolako lan-harremanik sortuko bekadunaren eta Iñaki Goenaga - Teknologi Ikertegien Fundazioaren edo bekaduna hartzen duen Ikertegiaren artean, eta Ikertegiak ez du inolako konpromisorik hartzen gero bekadun hori bere langileen artean sartzeko.

Beka eskuratzeko baldintzak

Bekaduna programa zertuko duen Ikertegian sartzan denean hasiko da beka eskuratzen ere; programa burutzera konprometituko da bekaduna eta Ikertegiko arauak betetzera betiere, probetxu ona izan dezan beharrezko diren jarrera eta interesarekin.

Beka bateraezina da ordaindutako edozein lanekin.

Bekarako baldintzak betetzen ez badira, Fundazioak eskubidea izango du emandako diru-kopuruak erreklamatzeko.

Lanak Tesiaren zuzendariak gidatuko ditu, baina Fundazioak beti izango du ahalmena bekadunaren jardueraz kontrol orokorra egiteko.

Fundazioak eskubidea izango du, urteko edozein unetan, bekaduna egiten ari denaz txostena eskatzeko bekadunari berari edo Ikertegiari. Txosten hori bekadunak ez badu aurkezten edota aurkeztutakoaz Fundazioak balioespen negatiboa egiten badu, laguntza eten egin daiteke berehala. Erabaki honek motibatua beharko du izan.

Beka betiko edota aldi baterako eteteko zio edo motiboak honako hauek izan daitezke:

- Bekaren prestakuntza-helburuak lortzeko ezintasuna.
- Bekari probetxurik ez ateratzea.
- Diziplinarik eza.
- Bekadunaren esku jarritako ekipo eta materialak behar bezala ez erabiltzea.
- Ikertegiko barne-arauekiko begirunerik eza.
- Isilpeko informazioa argitara ematea.

Bekadunek ondorengo eskubide eta betebeharrak izango dituzte:

- Bekaren ondorioz, deialdiaren oinarrietan ezarritako diru-kopurua hartuko dute.
- Istripu-asegurua izango dute.
- Bekaren edukiarekiko prestakuntza gehigarria hartzeko aukera izango dute, dagokien Ikertegiko arauen arabera.
- Fundazioaren Idazkaritza Teknikoa bekadunen esanetara izango da beti, eskatzen diotenari erantzuteko.
- Beka garatzen ari diren Ikertegiko barne-araudia bete beharko dute.
- Beka bukatzean, beren lan-egoeraren berri eman beharko diote Fundazioari.

Fundazioak bekadunak egindakoaren ziurtagiria egingo du bekaren hirugarren urtearen hasieratik aurrera.

Bekak eskatzea

Bekak eskatzeko baldintzak

Beka eskatzeko, gaindituta izan beharko dira titulua eskuratzeko beharrezko ikasgai guztiak.

Beka eskatzeko, beharrezkoa da Goi-mailako Tituludun izatea (Ingeniaritzen kasuan, ikasketa-bukaerako proiektua bukatuta izatea).

Eskaerak balioestea

Ondorengo irizpideon arabera egingo da:

- Espediente akademikoa
- Aukeran, hobe azken aldiko titulazioa
- Hizkuntzak jakitea
- Eskatzaileak aurkezten duen beste edozein meritu: ikasketa-bukaerako proiektuaren gaia, egindako lan teknikoak, ikasketak, etab.
- Bakoitzarekin egingo den elkarrizketa.

Fundazioak Epaimahai kalifikatzaile bat izendatuko du Bekak emateko.

Atzerriko titulazioek Estatuko titulazioekin duten baliokidetasuna Fundazioak balioetsiko du.

Eskaerak aurkeztea eta bekak ematea

Beka-eskaerak 2003ko uztailaren 11tik irailaren 5era arte egin behar dira.

Bekaren bat esleitu gabe geratzen bada, edota deitutako beketan aldaketak gertatzen badira, komenigarri iruditzen zaizkion erabakiak hartzeko eskubidea izango du Fundazioak, betiere deialdi honi dagokion espirituaren barruan.

Dokumentazioa

Hautagaiek ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar dute:

- Eskaera behar bezala beteta.
- Espediente akademikoaren ziurtagiria.

Dokumentazioa aurkeztea

Dokumentazioa hiru eratara aurkez daiteke:

- 1) Web orrialde honen bidez: <http://www.saretek.net/becasdoctorado>. Helbide honetan dauden argibideei jarraituz, eskatzaileek behar bezala beteta ESKAERA-ORRIA bidal dezakete, baita ESPEDIENTE AKADEMIKOA ere.
- 2) ESKAERA-ORRIA Internet bidez ongi bidali bada, baina arazo teknikoengatik ESPEDIENTE AKADEMIKOA ezin bada bidali, hau ohiko postaz ondorengo helbidera bidali behar da:

Iñaki Goenaga – Teknologi Ikertegien Fundazioa
Teknologi Parkea, 101. eraikina
48.170 ZAMUDIO (Bizkaia)

- 3) ESKAERA-ORRIA Internet bidez ezin bada bidali, aipaturiko web helbidean inprima dezake eskatzaileak berak. Edo bestela, Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Ingeniarien hiru Elkargo Ofizialetan ere eskura daiteke. Kasu hauetan, ESKAERA-ORRIA bera eta ESPEDIENTE AKADEMIKOA eskuz eraman behar dira hiru Elkargoetakoren batera; hona hemen helbideak:

Arabako Industri Ingeniarien Elkargo Ofiziala
Bizkaia, 2 (Gasteiz 01006)
Tel. 945 150 555

Bizkaiko Industri Ingeniarien Elkargo Ofiziala
Mazarredo zumardia, 69 (Bilbo 48009)
Tel. 94 423 22 44

Gipuzkoako Industri Ingeniarien Elkargo Ofiziala
Zubieta, 38 (Donostia 20007)
Tel. 943 423 918

Garrantzitsua

Aukeratzeko prozesua eskaera-orrian eta espediente akademikoan espresuki idatzitako informazioaren arabera egingo da.

Beka eskatze hutsak esan nahi du oinarri hauek onartzen direla, eta Iñaki Goenaga Teknologi Ikertegien Fundazioa izango da sortzen diren gorabeherak ebatziko dituen.

INFORMAZIOA:

- Iñaki Goenaga Teknologi Ikertegien Fundazioan (Tel. 94 420 94 88)
- Industri Ingeniarien hiru Elkargo Ofizialetan.
- Ondorengo web orrian: <http://www.saretek.net/becasdoctorado>